



2025ko

Memoria Udaltzaingoa



☎ 092 · 944666341
✉ udaltzaingoa@basauri.eus
✕ @BasauriPolizia

1	Aurkibidea	2			
2	Aurkezpena	3			
3	Misioa, ikuspegia eta balioak	4			
	3.1. Ikuspegia	5			
	3.2. Misioa	6			
	3.3. Balioak	7			
4	Administrazioa-polizia	8			
	4.1. Komunikazioa eta informazioa	9			
	4.2. Udal-ordenantzak	11			
5	Trafiko eta bide segurtasuna	14			
	5.1. Trafiko-istripu artatuak	15			
	5.2. Trafiko-istripu motak	16			
	5.3. Istripuak: arrazoiak	17			
	5.4. Harrapatzeen arrazoiak	18			
	5.5. Biktimologia istripu-tasan	19			
	5.6. Trafikoaren zaintza berezia	20			
	5.7. Ibilgailuen gaineko kontrolak	21			
	5.8. Ibilgailuen udal-biltegia	22			
	5.9. Egindako trafiko-salaketak	23			
6	Polizia judiziala eta ikerketa	26			
	6.1. Delituak, salaketak eta ikerketa	27			
	6.2. Indarkeria matxista	30			
	6.3. Udaltzaingoak ikertu eta atxilotu dituen pertsona	31			
7	Herritarren segurtasuna eta hurbiltasuna	33			
	7.1. Gorabeherak eta eshu hartzeak	34			
	7.2. Prebentzioa eta babesak	35			
	7.3. Herritarren babesak	36			

Dokumentu honek Basauriko Udaltzaingoaren 2025ko jardueraren urteko memoria jasotzen du.

Helburua da erakundearen beraren datu garrantzitsuenak biltzea eta islatzea, bai eta Udaltzaingoak egindako jarduerari buruzkoak ere, eta herritarrek datu horiek zuzenean eskura izatea, modu garden, egiazko eta hurbilean, horiexek baitira Udaltzaingo honen nortasun-ezaugarriak. Xedea da jarduera presentzial nabarmena lortzea gizarte-, merkataritza- eta lan-esparruan, eta pertsona eta ibilgailu gehiago egotea gure kaleetan.

2025ean, bi ibilgailu hibrido entxufagarri sartu ditugu gure flotan, bizitza baliagarria gaindituta zuten bi patruila-auto ordezteko.

Berrikuntza horrek hiru helburu nagusi ditu:

1. Zerbitzua hobetzea: ibilgailu berriek fidagarritasun handiagoa, prestazio hobeak eta ekipamendu eguneratua eskaintzen dituzte, eta, horri esker, zerbitzu seguruagoa eta efizienteagoa eman dezakegu.

2. Jasangarritasunaren alde egitea: Ibilgailu hibrido entxufagarriak direnez, emisio kutsatzaileak eta erre-gai-kontsumoa murrizten ditugu, eta gure udalerraren

ingurumen-konpromisoari laguntzen diogu.

3. Baliabide publikoak optimizatzea: ibilgailu zaharrak ordezteak mantentze-lanen eta matxuren kostuak murrizten ditu, eta udal-aurrekontuaren kudeaketa efizienteagoa bermatzen du.

Horrekin, Udaltzaingoa modernoagoa, jasangarriagoa eta gure herritarren beharrei erantzuteko prestatuagoa izateko bidean aurrera egiten jarraitzen dugu.

Basauri udalerrri segurua da oraindik ere; hala erakusten dute delinkuentzia-datuek, segurtasun publikoko zerbitzuaren eskaintza onarekin. Zerbitzuak, Udaltzaingoarenak, berritze-prozesuan jarraitzen du basauritarren eskubideak eta askatasunak gozatzen direla bermatzeko.

Nabarmentzekoa da plantilla gaztetzeko prozesua eraman dela aurrera eta Udaltzaingoan emakumeen presentzia handitu dela. Horri esker, oreka egokia lortu da berteranoen eta gazteen artean, segurtasun-zerbitzu egokia emateko betiere.

Amaitzeko, balioa eman behar zaio Ertzaintzarekiko eta Babes Zibileko Boluntarioen Elkartarekiko eguneroko osagarritasunari.





3

Misioa, ikuspegia eta balioak



3.1. Ikuspegia

Basauriko Udaltzaingoa funtsezko zerbitzu publikoa da, profesionala, Basauriko herritarrei urteko 365 egunetan 24 orduz arreta ematen diena, Udaltzaingo integrala, baloratua eta herritarren beharretatik hurbil dagoena agenteen profesionaltasunetik eta inplikaziotik abiatuta, eta etengabeko hobekuntzara eta aldaketetara egokitzera bideratua.



3.2. Misioa

Udaltzaingoaren eginkizun nagusia da eskubideen eta askatasunen erabilera librea babestea eta herritarren segurtasuna bermatzea, bizikidetzak baketsua zainduz, eta pertsonak eta haien

ondasunak babestuz, Legearen arabera, horrela herritarren bizi-kalitatea eta gizarte-ongizatea hobetuz. Zehazki, honela eramango dugu aurrera:



Herritarrak eta bertako agintariak babestea espazio publikoa zainduz, gatazken bitartekaritzan lagunduz eta Legea beteko dela bermatuz.



Ezagutzen diren delituak ikertzea, haien eragina ebaluatzea eta inplikaturako pertsonak epailearen esku uztea.



Herrigunean trafikoa antolatzea, seinaleztatzea eta zuzentzea, zirkulazio-arauetan ezarritakoaren arabera. Horrez gain, kirol-ekitaldietan eta -probetan laguntzea, dena behar bezala atera dadin, eta parte-hartzaileen eta gainerako herritarren segurtasuna bermatzeko.



Udaltzaingoaren eskumenen esparruan, administrazio-poliziaren zereginak egitea ordenantzei, bandoei eta gainerako udal-xedapenei eta -egintzei dagokienez, eta tokiko eskumenen esparruan, ingurumeneko eta ingurunea babesteko araudia betetzen dela zaintzea.



Laguntza-polizia, istripuetan, katastrofeetan edo hondamendietan laguntza emanez, gizarte-zerbitzuen sarearekin elkarlanean.

3.3. Balioak

Tokiko segurtasun publikoaren erakunde gisa dugun ikuspegia lortzeko eta Basauriko Udaleko Gobernu Taldeak eman digun eginkizuna betetzeko, honako balio hauek ditu arau Udaltzaingoak:

- 1 Komunitateari zerbitzu ematea:** Udaltzaingoak bere ardurapeko komunitatearen segurtasuna eta ongizatea zaintzen ditu, eta bizikidetzaren, errespetua eta ordena publikoa sustatzen ditu.
- 2 HURBILTASUNA:** Hurbiltasunetik eta gure zerbitzua ematen diegun pertsonetara jarrera irekitik.
- 3 Lankidetzaren:** Udaltzaingoa beste segurtasun-kidego batzuekin elkarlanean aritzen da, hala nola Ertzaintzarekin eta beste udal atal batzuekin, herritarren segurtasuna bermatzea helburu.
- 4 Gardentasuna:** herritarrekiko komunikazioan argitasuna eta zintzotasuna sustatzen dira, eta konfiantza eta lankidetzaren giroa sortzea bilatzen da.
- 5 Berdintasunarekiko konpromisoa:** Udaltzaingoak herritar guztientzako tratua eta aukera-berdintasuna bermatu behar ditu, generoagatik, arrazagatik, sexu-orientazioagatik, erlijioagatik eta abarrekiko diskriminaziorik gabe.
- 6 Lantaldea:** zerbitzua osatzen duten pertsonak dira Basauriko Udaltzaingoaren indargunea, beren helburuak gidatuko dituen lidergo aktibo batekin.
- 7 Etengabeko hobekuntza:** gure lanaren aldizkako ebaluazioa egiten dugu, gure jarduna berrikusi eta hobetzeko.





4

Administrazioa- Polizia

ADMINISTRAZIO-ARLOKO ASKOTARIKO
ARAUDIEN KONTROLARI BURUZKO
INFORMAZIOA ETA JARDUERA.



4.1. Komunikazioa eta informazioa

BARNE-KOMUNIKAZIOA

ARRAZOIA	KOPURUA
Polizia-jarduketari buruzko eguneroko txostenak eta berritasunak	365
Txostenak Udalaren sailei	330
Galdutako eta aurkitutako gauzen kudeaketa	545
Udal-ordenantzen inguruko gorabehereri buruzko txostenak eta salaketak Udalaren sailei	76
GUZTIRA	1.316

Udaltzaingoak informazioa biltzeko, tratatzeko eta lantzeko lan handia egiten du urtero, eta, ondoren, erakundeak berak kontsumitzen du informazio hori, edo beste erakunde batzuetara bideratzen du: udal-sailetara, Ertzaintzara, epaitegietara...

Herritarrek ikusten ez duten lan hori egiteko, barne-prozedura egokiak erabili behar dira, jasotako kasuistika behar bezala aprobetxatzeko, segurtasun-eskaintzaren baliabideen kudeaketan aplikatu ahal izateko.



4.1. Komunikazioa eta informazioa

BESTE INSTANTZIA BATZUETARAKO TXOSTENAK

Nabarmentzekoa da erakunde autonomoen eta Herritarren Seguratasunerako eta Babeserako Lege Organikoaren aurkako arau-hausteen salaketek gora egin dutela aurten. Lehenengo kasuan %65 hazi dira eta bigarrenen %8g.

Urtean erantzuten diren abisu, kexa eta iradokizunen kopurua ere (AKI) nabarmendu behar da. AKI horietara udalaren webgunearen bidez sartzen da. Kexa horiek bizilagunei erantzuten zaizkie, haien eta, kasu honetan, Polizia Arloaren artean zuzeneko harreman-lerro bat sortuz.

Basauriko Udaltzaingoak **Arartekoaren Abako Proiektuan parte hartzen du urtero, Torturaren Prebentziorako Mekanismo Nazionalaren (MNT) barruan**, eta modu gardenean ematen du askatasunaz gabetutako pertsonen atxilotetan eta zaintzan Udaltzaingoak aurrera eramandako jarduera.

Era berean, **Arartekoaren Bulegoaren** galdetegiari erantzun zaio, Basauriko Udaltzaingoak atxilotutako pertsoneri buruz eskatutako datuei dagokienez.

ARRAZOIA	KOPURUA
AKI (Abisuak, Kexak, Iradokizunak, Galderak eta Eskerrak)	187
Partikularrei eta aseguru-etxeei txostenak egitea	250
Epaitegien jakinarazpenak/zitazioak/ eskabideak	185
Ararteko	1
Herriaren Defendatzailea	1
HSLO salaketak	89
Beste batzuk (Alokabide...)	4
GUZTIRA	717



4.2. Udal-ordenantzak

ARRAZOIA	KOPURUA
Gorabeherak animaliekin	259
Gorabeherak txakurrekin	125
Gorabeherak ostalaritzako araudiarekin	21
Gorabeherak zaratarekin	861
Gorabeherak obretako araudiarekin	89
Gorabeherak isuriekin	43
Beste arau eta ordenantza batzuk	95
GUZTIRA	1.493

Udal Ordenantzen esparruko esku-hartzeak ofizioz edo partikularrek eskatuta egiten dira. Udaltzainek lehen esku-hartzea egin eta gertatutakoa egiaztatu ondoren, eskumena duen


Udal-sailari dagokion txostena edo salaketa-akta igortzen zaio, dagokion espedientea tramita dezan. 2025an, % 9,20 igo dira mota horretako esku-hartzeak.




4.2. Udal-ordenantzak

ZARATEN ONDORIOZKO ERAGOZPENEN JATORRIA

Zaratek eragindako eragozpenengatik irekitako intzidentziak % 17,68 igo dira 2025ean, baina ez dira iristen 2022ko mailetara, grafikoan ikus dezakegun bezala. Gorakada esanguratsua da horrelako intzidentzietan.



BILAKAERA, URTEKA




4.2. Udal-ordenantzak

PARTIKULARREN ARTEKO LISKARRAK

2025ean, horrelako esku-hartzeek gora egin dutela ikusi da, eta igoera hori mantendu egin da 2023tik, pandemian izandako gorakadaren ondoren. Azken urteotako joerarekin hautsi, eta, 2024an, mantendu egin da Udaltzaingoak alor horretan izandako esku-hartzeak. 2020tik, pandemia betearen garaian, nabarmen egin zuten gora partikularren arteko tirabirek: guztira, % 43,90eko igoera metatua izan zuten, 2020ko kopuruak oinarri hartuta. Bada, lau urtean lehenengo aldiz, gelditu egin da igoera hori, eta 2023ko esku-hartzeen kopurua mantendu egin da 2024an ere.

Liskarrak bi pertsonaren edo gehiagoren arteko desadostasunak dira, eta Udaltzaingoaren esku-hartzeak halakoak baretzea lortzen du, garrantzi handiagoko gertakaririk eragin gabe, hala nola erasoak, mehatxuak, irainak eta abar. Elkarbizitzako desadostasunen, gizalege faltarekin loturiko gertakizunen, udal-ordenantzak ez betetzeagatiko erantzukien eta partikularren arteko salerosketen eta merkataritza jardueren ondorio dira arazo gehienak.

Udaltzaingoak bitartekari-lana egiten du, gatazka hasieran konpondu ahal izateko, eta, ondoren, Udaleko Auzo-bitartekaritza Zerbizura edo gai horretan eskumena duten beste instantzia batzuetara bidera dezake.





5

Trafiko eta bide segurtasuna

ZAINTZEA, ANTOLATZEA ETA ARAUTZEA.
INSTRIPU-TASA.




5.1. Trafiko-istripu artatuak

Mugikortasunari dagokionez, 2025ean jaitsiera nabarmena izan da trafiko-istripuen kopuruan, oro har. Zaurituak eragin dituzten istripuen kopurua % 42 jaitsi da, eta joera positiboa sendotu da bide-segurtasunaren arloan.

Datu estatistikotik harago, murrizketa horrek herritarren bizi-kalitatea zuzenean hobetzea dakar, baita inpaktu sanitario txikiagoa eta bide-ezbeharretatik eratorritako kostu sozial txikiagoa ere.

Azpirarratu behar da trafiko-istripu gehienak arreta galtzearen edo trafiko-araudia ez betetzearen ondorio direla.


	2022	2023	2024	2025
BIKTIMEKIN	39	48	49	28
BIKTIMARIK GABE	355	240	166	90
ISTRIPUAK GUZTIRA	394	288	215	118



5.2. Trafiko-istripu motak

Udalerriko istripu-tasaren kalekako banaketari dagokionez, ikus daiteke istripu gehienak Agirre Lehendakaria eta Artunduaga, Ibarreta eta Zabalandi kaleetan gertatzen direla. Udalerriko azken bi kale horiei dagokienez, nabarmendu behar da zirkulazio handia izaten dela bertan daudelako Mercabilbao eta Bilbondo merkataritza-gunea.


	2021	2022	2023	2024	2025
TALKAK	373	385	273	159	96
HARRAPATZEAK	12	11	10	13	8
BESTE BATZUK	6	2	5	43	14



5.3. Istripuak: arrazoiak

Udalerriko istripu-tasaren arrazoi nagusiak honako hauek dira oraindik ere:


- Arreta galtzea
- Trafiko-arauak ez betetzea



5.4. Harrapatzeen arrazoiak

Aurreko urteetan bezala, udalerrian gertatzen diren harrapatze gehienen erantzulea ez da oinezkoa, pentsa daitekeenetik urrun.

Arrazoi nagusiak dira lehentasun-araudia ez betetzea eta gidariek arreta galtzea.



5.5. Biktimologia istripu-tasan

	2022	2023	2024	2025	
GIDARIA	HILDAKOAK	0	0	0	0
	ZAURITU LARRIAK	1	1	2	0
	ZAURITU ARINAK	27	27	28	19
	ZAURIRIK GABE	272	245	262	172
BIDAIARIA	HILDAKOAK	0	0	0	0
	ZAURITU LARRIAK	0	0	0	0
	ZAURITU ARINAK	11	10	17	10
	ZAURIRIK GABE	29	22	25	14
OINEZKOA	HILDAKOAK	1	0	1	0
	ZAURITU LARRIAK	2	4	3	1
	ZAURITU ARINAK	9	9	9	7
	ZAURIRIK GABE	0	2	1	0

	2022	2023	2024	2025	
HILDAKOAK	GUZTIRA	1	0	1	0
	EMAKUMEAK	0	0	1	0
	GIZONAK	1	0	0	0
ZAURITU LARRIAK	GUZTIRA	3	5	6	1
	EMAKUMEAK	1	0	3	1
	GIZONAK	2	5	3	0
ZAURITU ARINAK	GUZTIRA	49	45	37	36
	EMAKUMEAK	18	17	16	16
	GIZONAK	31	28	21	20

5.6. Trafikoaren zaintza berezia

	2022	2023	2024	2025
Orokorra	653	681	821	1055
Ikastetxeetan	336	299	256	258
Manifestazioak	24	21	20	19
Galtzako anomaliak	424	302	256	214
Ibilgailuei laguntzea	65	81	76	49
GUZTIRA	1.502	1.384	1.429	1.595

Udaltzaingoaren funtsezko zereginetako bat udalerriko bide-segurtasuna hobetzea da. Datuek erakusten dutenez, zirkulazioa zaintzeko eta kontrolatzeko intentsitateari eutsi zaio, eta arreta berezia jarri da ikastetxeetan eta erregulazio orokorreko eremuetan kasuistika jakin batzuekin egiten diren zaintzetan.

Era berean, trafikoa arautzen lagundu da udalerrian egindako manifestazioetan eta kirol probetan.

Ez da ahaztu behar agente zibikoek eskola-eremuetan egindako trafikoaren erregulazioa, eskoletan 382 trafiko-erregulazio egin baitituzte lanean aritu diren hilabeteetan.



5.7. Ibilgailuen gaineko kontrolak

	2022	2023	2024	2025
Trafikoko kontrol orokorra	131	92	76	61
IAT kanpaina - gabezia tekn.	8	9	8	8
Segurtasun-uhalaren eta haurrak lotzeko sistemaren kanpaina	5	6	5	5
Alkohola / drogak	80	82	85	70
Abiadura	143	125	104	84
Mugikorra eta arreta galtzea	25	25	14	13
GUZTIRA	392	339	292	241



5.8. Ibilgailuen udal-biltegia

UDAL-GARABIAK EGINDAKO ZERBITZUAK

Udal Garabi Zerbitzuak Udaltzaingoari laguntza ematen dio ibilgailu arau-hausleak bide publikotik kentzeko, eta, gainera, laguntza ematen dio seinaleak jartzen, trafiko-istripuetan eta kultura- eta kirol-ekitaldietan.

	2022	2023	2024	2025
Biltegi eramatea	406	448	486	452
Geldiaraztea	36	66	67	120
Lekuz aldatzea	7	16	21	42
GUZTIRA	449	530	574	614

(* Ibilgailuen Tratamendurako Zentro Baimendua (desguazea). Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak zentro baimendu horien zerrenda argitaratzen du.

2022	2023	2024	2025
92	78	108	117

TZB*RA ERAMANDAKO IBILGAILU ABANDONATUAK

Ibilgailuen abandonu-espeditateak titularrek bide publikoan ibilgailuak nahita uzten dituztenean hasten dira batez ere. Ibilgailu horiek herritarren salaketari eta agenteen zaintzari esker aurkitzen dira. Gainerako ibilgailuak, berriz, hondakin gisa tratatzeko asmoz ibilgailua lagatzeko borondatezko baimenetatik datoz, edo udal-biltegi utzita geratzen diren eta jabeek berreskuratzen ez dituzten ibilgailuenak izaten dira. Prozesua luzea da, eta hainbat administrazio-jarduera behar ditu, eta baliteke detektatu diren unetik hilabeteak atzeratzea.



5.9. Egindako trafiko-salaketak

TRAFIKO SALAKETAK ETA PUNTUAK KENTZEA

2.587

SALATUTAKO ARAU-HUSTEAK

2.587 gidari salatu dira trafikoarekin lotutako gertakariengatik 2025. Urtean.

Basauriko udaltzainek eguneroko patruila-lanetan salatutako 2.587 arau-hauste horietatik 369, hau da ehuneko hori % 2,78 jaitsi da 2024arekin alderatuta.

Basauriko udaltzainek eguneroko patruila-lanetan salatutako 2587 arau-hauste horietatik 369, hau da, % 14,22 gidabaimeneko puntuak galtzea dakarten salaketak dira. Portzentaje hau % 2,78 jaitsi da.



5.9. Egindako trafiko-salaketak

TRAFIKO-SALAKETEN TIPOLIGIA



	2024	2025
Gelditzea eta aparkatzea	1.126	936
IAT eta gabezia teknikoak	428	465
Abiadura	445	189
Asegurua	176	201
Arreta galtzea	62	56
Alkohola eta drogak	25	41
Segurtasun-elementuak	25	62
Gidariaren dokumentazioa	69	79
Zirkulazioko beste arau-hauste batzuk	515	558
GUZTIRA	2.871	2.587



5.9. Egindako trafiko-salaketak

Urtez urte errepikatzen den bezala arau-hausteen jatorriaren arrazoi nagusia aparkatzeekin, dago lotuta.

Azpimarratzekoa da arau-hauste asko, batez ere dokumentazioarekin lotutakoak, bai gidariarenak, bai ibilgailuenak, egiten diren errepide-kontrolen bidez detektatzen direla nagusiki.





6

Polizia Judiziala eta Ikerketa

UDALERRIKO
DELINKUENTZIA-DATUA.
DELITUA IKERTZEA.



6.1. Delituak, salaketak eta ikerketa

ERTZAINZAK ETA UDALZAINGOAK UDALERRIAN JAKINARAZITAKO ARAU-HAUSTE PENALAK MOTAREN ARABERA. 2024

Sartu euskadiko delinkuentzia-memoria 2024ko irudia

Arau-hauste mota	2024	2025	Aldaketa
Giza hilketa eta haren motak	4	0	- % 100,00
Dolozko giza hilketa/erailketa burutua (EB)	-	-	-
Dolozko giza hilketa/erailketa-saiakuntza (EB)	4	0	- % 100,00
Giza hilketa eta haren motak: beste arau-hauste batzuk	-	-	-
Lesioak	125	175	+ % 40,00
Familia-eremuko tratu txarrak	32	53	+ % 65,63
Lesioak	85	113	+ % 32,94
Lesioak, beste arau-hauste batzuk	8	9	+ % 12,50
Tortura eta osotasunaren aurkakoak	87	55	- % 36,78
Familia-eremuan ohiko tratu txarrak	82	49	- % 40,24
Tortura eta osotasunaren aurkakoak: beste arau-hauste batzuk	5	6	+ % 20,00
Sexu-askatasunaren aurkako delituak (EB)	6	12	+ % 100,00
Sexu-erasoa	5	10	+ % 100,00
Sexu askatasunaren aurkako beste arau-hauste batzuk	1	2	+ % 100,00
Ondarearen eta ordena sozioekonomikoaren aurkakoak	923	944	+ % 2,28
Ebasketa (EB)	563	602	+ % 6,93
Gauzetan indarra erabiliz egindako lapurretak	111	101	- % 9,01
· Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak (EB) (1)	28	31	+ % 10,71
· Gauzetan indarra erabiliz etxebizitzetan egindako lapurretak	20	23	+ % 15,00
· Etxebizitzako beste gela/eranskin batzuetan indarra erabiliz egindako lapurreta	8	8	+ % 0,00
· Indarra erabiliz enpresetan egindako lapurreta	3	5	+ % 66,67
· Indarra erabiliz dendetan eta beste espazio itxi batzuetan egindako lapurreta	26	9	- % 65,38
· Gauzetan indarra erabiliz beste leku batzuetan egindako lapurreta	54	56	+ % 3,70
Indarkeriazko edo larderiazko lapurreta (EB)	18	15	- % 16,67
Kalteak	130	137	+ % 5,38
Motordun ibilgailuak lapurtzea (EB)	13	9	- % 30,77
Iruzurra	46	43	- % 6,52
Ondarearen aurkako beste arau-hauste batzuk	42	37	- % 11,90
Segurtasun kolektiboaren aurkakoak	40	33	- % 17,50
Osasun publikoa: Droga-trafikoa (EB)	13	8	- % 38,46
Alkoholaren, drogen, eta abarren eraginpean gidatzea	9	6	- % 33,33
Segurtasun kolektiboaren aurkako beste arau-hauste batzuk	18	19	+ % 5,56
Beste arau-hauste penal batzuk	184	143	- % 22,28
ARAU-HAUSTE PENAL GUZTIA	1.369	1.362	- % 0,51
1.000 BIZT. TASA	33,85	33,78	- % 0,20
Delitu informatikoak	515	421	- % 18,25
Iruzur informatikoak	457	370	- % 19,04
Ziberfalsifikazioak	15	15	+ % 0,00
Zibermehatxuak eta ziberhertsapenak	16	14	- % 12,50
Sekretuak aurkitzea eta ezagutaraztea	3	1	- % 66,67
Sexu-ziberdelituak	0	2	-
Zibereraso informatikoak	7	0	- % 100,00
Beste delitu informatiko batzuk	17	19	+ % 11,76
ZIBERDELINKUENTZIA GUZTIRA	515	421	- % 18,25
1.000 BIZT. TASA	12,73	10,44	- % 18,00
ARAU-HAUSTE GUZTIRA	1.884	1.783	- % 5,36
1.000 BIZT. TASA	46,58	44,22	- % 5,07



6.1. Delituak, salaketak eta ikerketa

DELITUEN NAGUSITASUNA



←..... 54 DELITUAK
 ←..... 1.000 BIZTANLEAK

Euskal Poliziaren 2025ko Urteko Memoriatik ateratako delitu-datuetatik, Ertzaintzak eta Basauriko Udaltzaingoak 2025an erregistratutako delituak aurkeztuko dira ondoren.

Biztanleko delitu-tasa 54,51 izan da, eta aurten berriz ere % 4,88 jaitsi da.

Datuen arabera, Basauri udalerrri segurua da, eta ondarearen aurkako delituak mantendu egin dira iazko datuekin alderatuta. Lesio-delituek gora egin dute, familia-eremuan horrelako delituak ugartu direlako.

Basauriko delinkuentzia-tasa Euskal Autonomia Erkidegokoaren azpitik dago oraindik ere, 64,65 delitu/1.000 biztanleko tasarekin, eta Bizkaikoa baino txikiagoa da, 65,71 delitu/1.000 biztanleko tasarekin.



6.1. Delituak, salaketak eta ikerketa


GEHIEN EMANDAKO DELITUAK 2025

Nabarmentzekoa da Basauriko delituri ohikoena ondarearen aurkako delituak direla, eta ebasketak eta kalteak direla ohikoena. Garrantzi handiagoko delituak kopuru onargarrietan mantendu dira Basauri bezalako herri seguru batentzat.

Etxebizitzetan egindako lapurretek eta indarkeriaz egindako lapurretek gora egin dute pixka bat, nahiz eta, zenbaki absolutuetan, delitu horiek gutxiengoa izaten jarraitzen duten gure udalerrian.


Sexu-askatasunaren aurkako delituengatik salaketak anekdotikoak dira, guztizkoaren % 0,7.

Hala ere, indarkeria matxista oraindik ere azaleratzen da biktima potentzialak etengabe zaintzea eta prebenitzea eskatzen duten datuekin. 2025ean, Basauriko udaltzaingoak 22 atestatu ireki ditu indarkeria matxistarekin lotutako legez kontrako delituengatik, aurreko urteetakoa baino datu handiagoa.




6.2. Indarkeria matxista

INDARKERIA MATXISTAGATIK ERRUZTATUAK



EUSKAL POLIZIAREN DATU BATERATUAK BASAURIN



BASAURIKO UDALTZAINGOAK ERRUZTATUAK
INDARKERIA MATXISTA KASUETAN



6.3. Udaltzaingoak ikertu eta atxilotu dituen pertsonak

Udaltzaingoak atxilotutako eta ikertutako pertsonen banaketa, delitu-tipoaren arabera, egitatea ebatzi edo argitu eta gero.



6.3. Udaltzaingoak ikertu eta atxilotu dituen pertsonak

BILAKAERA, URTEKA

2025ean atxilotutako pertsonen kopurua % 26,5 handitu da 2024. urtearekin alderatuta, eta, gainera, ikertutako pertsonen kopurua mantendu egin da.





7

Herritarren segurtasuna eta hurbiltasuna

BABESA ETA ARRETA.
PREBENTZIO-EKINTZAK.
ZAINTZAK.



7.1. Gorabeherak eta eshu hartzeak

2025

ESKU-HARTZEAK

17.303

2024an 17303 esku hartze edo gorabehera erregistratu dira, herritarrek eskatuta edo Udaltzaingoaren beraren ekimenez. Erregistro horietako bakoitzean, litekeena da Basauriko Udaltzaingoak hainbat jarduketa egin behar izatea.



7.2. Prebentzioa eta babesa

	2025
Lapurreten prebentzioa saltokietan	418
Lapurreten prebentzioa banketxeetan	52
Delituen prebentzioa ostalaritzan	263
Lapurreten prebentzioa enpresetan eta industrialdeetan	523
Drogak saldu, eduki eta kontsumitzearen prebentzioa	141
"Besarkada solidarioen" prebentzioa (lapurretak adinekoei)	116
Genero-indarkeriaren biktimen babesa	203
Indarkeriazko lapurreten prebentzioa	108
Prebentzio-zaintza orotara	1.824

7.3. Herritaren babesa

	2025
Pertsona susmagarrien identifikazioa	162
Prebentzio-ekintzak: oinezko patruilak	446
Prebentzio-ekintzak: patruila mistoak	1.425
Babes- eta segurtasun-kontrolak	54
Alarmeri erantzutea	194
Babes-ekintzak orotara	2.281



2025ko

Memoria
Udaltzaingoa



☎ 092 · 944666341
✉ udaltzaingoa@basauri.eus
✕ @BasauriPolizia

